

## NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

### Araxes ibaia Betelun



Mota: Ibaia | Kokapena: Betelu

Ibai igerilekua urmael bat da, eta presa txiki batek sortu du. Urak Aralar mendilerroko (Malloak) iparraldeko eta Kantauriko isurialdeko mendigune karstikoko iturburuetatik datoz, eta ibaiaren sorburua bainu-eremutik 4 km-tara baino gutxiagora dago. Bertan amuarrainak eta uraren kalitatearen beste adierazle batzuk ikus daitezke.

**Ekipamendua:** Eremuak plataforma egokitua du, baita ibaiaren ertzeko babes hesia, uretara sartzeko eskailera eta txirristak ere. Komun kimikoa du.

**Sarbidea:** NA-1300 errepideko 23,00 KPan, Betelu herriaren ondoan. Aparkalekua du. Herritik ere joan daiteke, autoa herrian bertan utzita eta ezkerretatik doan bideari jarraituz. Azken etxeetatik 200 bat metrotara dago oinez.



[Nola iritsi](#)